



MUSIKA

Itsaso eta lurraren arteko gozamena



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Robert Treviñoren zuzendaritzapean.



Robert Treviño

RAVEL ETA MAHLER-EN OBRAK

ZUZENDARIA: ROBERT TREVIÑO

BAKARLARIAK:

JENNIFER JOHNSTON (MEZZOA)

CORBY WELCH (TENOREA)

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA.
URTARRILAK 31.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, bere azken abonua kontzerturako, estilo ugaritako obrak aukeratu zituen, eta nolabait osagarriak. Maurice Ravelen melodikotasun urtsu eta mugagabeak Gustav Mahlerren lur gaineko sentiberatasunari bide eman zion set gozo bat oparitzeko, non orkestraren eta bakarlarien interpretazioek gogoratze-ko moduko uneak izan zituzten.

Ziburuko maisuaren *Une barque sur l'océan* pieza zoragarriarekin hasi zen saioa. Obra hori, jatorrian pianoarentzat egina, *Miroirs* poliptikoaren zati bat da, eta oraingo honetan bertsio neutroa izan zuen, opakua. Beharbada, bertsio pianistikoaren oroitzapena genuen buruan, hain distiratsu eta liluragarria, eta horrexegatik bere orkestra-transuntua patinarik gabekoa irudituko zitzaigun.

Nolanahi ere, irakurketa zuzena izan zen, baina ez genuen sumatu Ravelen obra batetik beti espero dugun kolore eta giroa.

Beste txinparta bat, ordea, Treviño-Orkestra binomiotik sortu zen *La Valse* poema koreografikoa interpretatzean. Egia esan, oraingo honetan ere ez genuen Ravel inguratzaile eta lanbrotsu hori entzun. Ez zen bertsio inpresionista tipikoa izan. Robert Treviñok Ravelen ikuspegi pertsonala erakutsi zuen, xehetasunean, motibo eta esaldien disekzioan askoz gehiago zentratuta soinu-efektu inguratzailean baino. *Valse* honetan askoz gauza gehiago entzun genituen, musika-erri gehiago. Bestalde, partiturari itsatsitako ikuspegi batekin egin genuen topo, garbia, gordina, baina izugarri erakargarria eta berritzailea.

Kontzertuaren bigarren zatia Gustav Mahlerren *Lurraren abesti* lan ederrari eskaini zioten. Interpretazio zirraragarria egin zuten, eta hori ez da harritzekoa kontuan hartzen badugu Robert Treviño konpositore horretan espezialista dela. Obrak, bere bost zatietan zehar, eskatutako emozioa eta zehaztasuna izan zituen, eta bakarlarien aldetik interpretazio bikainak entzun genituen. Corby Welch tenoreak, nahiz eta ahots-kolore monotono samarra izan, batez ere lehen mugimenduan, maila handiko kanta eskaini zuen une oro. Jennifer Johnston mezzolari dago-kionez, bikain aritu zen dudarik gabe, eta emozio bizia transmititzen jakin zuen *Der Abschied* (agurra) amaiera ederrean, gai guztiak aparteko garbitasun eta lirismoaz azalduz. ●